



NOLA IDATZI BEHAR DITUT KOLOREZ MARKATUTAKO EGITURA HAUEK? MARRAREKIN ALA MARRARIK GABE?

- Egoera ekonomiko larrian bizi **garela eta**, ez dugu etorkizun onik ikusten gure seme-alabentzat.
- Egoera ekonomiko larrian bizi **garela-eta**, ez dugu etorkizun onik ikusten gure seme-alabentzat.
- Ez zidaten eman afaltzen, berandu heldu **nintzen eta**.
- Ez zidaten eman afaltzen, berandu heldu **nintzen-eta**.





Bi idazkerak zuzenak dira, eta bi-biak erabiltzen dira testuetan.

Hona zenbait adibide:

- Harrapakinen defentsak **direla eta**, harrapakariek nahiko abiadura motelean harrapatzen dituzte harrapakinak.
- Material batzuek, beren eratze- eta sedimentatze-kondizio naturalak **direla-eta**, kontuan hartu beharreko ezaugarri batzuk dituzte profil geologikoa eraikitzeke orduan.
- (...) grafikoko banaketan, desbiderapen estandar handiagoa ageri da, batez besteko balioaren inguruko balioen aldakuntza handiagoa **da eta**.
- Tripode bat ere baneraman, oso txarra bainaiz kamera eskuan hartuta; horrek esfortzu fisiko handiagoa eskatu zidan, astun samarra **zen-eta** (...)



AHOLKUA

Zenbait kasutan, hala ere, oso komenigarria da marraz baliatzea, irakurketa errazten baitu:

1. Marra erabiliz, irakurleari jakinarazten zaio “eta” hori ez dela juntagailua¹ baizik eta kausazko egitura baten osagaia [-eLA-ETA].
2. Adierazten zaio, halaber, nola ahoskatu behar duen “eta” partikula: kausazko egiturakoa enklitikoa da, eta aurreko egiturari lotuta irakurtzen da, etenaldirik egin gabe.

1 Juntagailuek maila bereko bi egitura (sintagmak edo esaldiak) elkartzen dituzte: *herrira joan nintzen asteburuan, eta han zure osaba-izebekin eta lehengusinarekin egon nintzen.*



AHOLKUA: adibideko esaldia nola interpretatu

Lan-arriskuen prebentzioan aurrerapauso txikiak eman direla eta prebentzioaren kulturarik ez dagoela salatu zuen hizlariak.

Bi interpretazio eman dakizkioke esaldi horri:

1. bi egoera salatu zituen hizlariak:

- lan-arriskuen prebentzioan aurrerapauso txikiak eman direla
- prebentzioaren kulturarik ez dagoela

2. hizlariak egoera bat salatu zuen, eta egoera horren kausa adierazi:

▪ Egoera salatua:

- prebentzioaren kulturarik ez egotea

▪ Egoera horren kausa:

- lan-arriskuen prebentzioan aurrerapauso txikiak eman izana

Lan-arriskuaren prebentzioan aurrerapauso txikiak eman **direlako** ez dago prebentzioaren kulturarik.



AHOLKUA: adibideko esaldia nola interpretatu

Interpretazio zuzena bigarrena bada, marra erabiliz saihests dezakegu anbiguotasuna:

Lan-arriskuen prebentzioan aurrerapauso txikiak eman
direla-eta prebentzioaren kulturarik ez dagoela salatu zuen
hizlariak.



-(e)LA-ETA: adibideak

- Europa kontinentalean, Inperio Karolinjioa, etengabeko inbasio eskandinabiarrak **zirela-eta** desagertzeaz zegoela, "tokiko zenbait leinuren mendeko beste hainbeste lurraldetan banatu zen IX. mendearen erdialdetik aurrera...".
- (...) lehen ministroak kargutik kendu zuen, jeneralaren ankerkeria **zela-eta** estatubatuarrak egindako kritikei kontu eginda, eta horren ostean sekulako porrot militarra etorri zen 1898an.

Adibide hauetan, esaterako, mendeko perpaus barruan doa kausazko egitura, eta ezin da komaz zedarritu.



aditza-eta: adibideak

- Langileak ohitu egin dira gu han ikustera, guk ere ez **diegu-eta** galdera askorik egiten.
- Nola zitekeen hiri horretan eginiko zenbait erosketa kargatzea, aipaturiko 2.874 euroak guztira, bera ez **zen-eta** han izan?
- Bero-transferentzia handiagoa litzateke pertsona biluzik balego, gainazal bero handiagoa **legoke-eta** agerian.

Adibide hauetan, esaterako, aditza + eta multzoa ez doa perpausaren bukaeran, baizik tartekaturik.



Beste kasu askotan, dela kokapenagatik dela puntuazioarengatik, ez da anbiguotasunik sortzen, eta marra ez da beharrezko.

- Teorialari batzuek, batez ere Karl Marx-en (1818-83) eraginpekoek, arestian aipaturiko demokrazia moldeei eraso diete, erabaki politikoetan parte hartzearen irudipen hutsa ematen **dutela eta**.
- Eremu horietan, eraikinen presentzia **dela eta**, egonkortutzat jotzen ahal da kalez eta eraikitako espazio partzelatuz osatutako konfigurazio jakin bat.



Adibide gehiago: aditza + eta

- Alzairu herdogaitza da arazo gutxien ematen duena. Material hori jarri den instalazioei -industrialak, gehienak- ez zaie akatsik antzeman, guk dakigunez behintzat, ura oso agresiboa izanda ere. Hala ere, gutxi erabiltzen da, oso garestia **da eta**.
- Arazoak izango ditugu, halaber, gure emaitzak beste kronometro batek hartutako denborekin alderatu nahi baditugu, haiek beste alborapen bat izango **dute eta**.